

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Margari Aizpurua Lete

*Donostia,
Gipuzkoa
(1923)*

Aurkibidea



Biografia



Ergobiako Oilalume baserrian jaio zen, baina hamabost egunekin Donostiara eraman zuten, hantxe bizi baitziren gurasoak, Portu kalean. Aitak arrandegi batentzat egiten zuen lana. Ama alargundu zenean, etxeko logela bat alokatzen hasi ziren, aurrera ateratzeko, eta ohiturari eutsi zioten gerora ere. Margarik Muñoaren eskolan egin zituen lehen urteak, euskaraz. Besteak beste Elbira Zipitria eduki zuen irakasle. Gero, mojetan ibili zen; dena erdaraz han. Erlijioa barruraino sartu zioten, eta elizako kontuetan ibili zen, katekista eta. Josten ikasi zuen, eta umeendako arropa egiten zuen etxean. Hasierako etxe berean bizi zen gurekin egon zenean ere, eta hori zuen zaletasuna, umeentzat arropatxoak egitea. Aresokoa (Nafarroa) zuen senarra, arotza.

Zintak

DON-013

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-17
- **Iraupena:** 84 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Portu kalea oso kale animatua da

- **Erref:** DON-013/002
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:02:32. **Bukatu:** 00:05:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Portu kalean hazi eta bizi izan da beti. Beti egon dira taberna asko,

horietako batzuk aipatzen ditu: 'Trabuko', 'Euskal bilera', Komunisten zentroa... Oso kale animatua da, jai guztien erdigunean dago. Dendak ere beti egon dira kalean. Baserritarrak Bretxan egon izan dira beti beraiei jeneroa saltzen.</p>

Transkripzioa

- Tabernak beti. Eta oain asko, [zaharrian].
- Eta zeintzuk ziran taberna ezagunenak lehen?
- Hemen tabernaik ezagunenak, hemen etxe honen /etxionen/ aurrian bat zan `Trabuko´ izena zuna, Manuel Agirre. Eta gero, gero, oain `Bernardo´ daon etxe hortan /etxiortan/ hor zan `Euskal bilera´. Eta `Euskal bilera´n gaiñian komunisten zentrua.
- Eta jende asko ibiltzen zan hor?
- Kale animatuba da oso. Ez dakit zeengatik, eo kaieako irteera dulako eo kaltetik etortzen dan jendiak hemendik pasa bihar dulako. Erakutsiko dizut geo balkoitik. Hori gertatzen da, e! Ta Plaza Konstituziyua´re oso famosua izandu da /izandua/ beti, ta garai hartan´e bai. Ta biyen erdin nola baitaon. Oso da animatuba. Beira: tanborrerruak baldin badia, hemendik pasa gabe ez da gelditzen; txarangak baldin badia, hemendik pasa gabe ez da gelditzen; iñauteritako karrozak baldin badia, hemendik pasa gabe ez zaizu geldittuko. Eta guardiyak? nik ez dakit zuk nola pentsatuko dezun, baiño, badakizu, tipo haiek etortzen zianian, pelotazuak´e hemen izaten zian gehienak. Eta ertzaina bea´re bai. Ez naiz harritzen deitzen diyotena deitzia mutil gaztiak. Ez naiz batere harritzen.
- Orduan, dana ikusten da hamendik balkoitik?
- Bai, bai.
- Eta lehen dendarik-eta bazeon?
- Bai, komestibliak bazian. Aurrian bat eta hemen bihan beste bat, mutil zaharra. Bi komestible. Gero plaza bertaa itten da /ittea/ hemendik. Lidl ta Bretxako... baserritarrak etortzen dienak, berta-bertan itten da /ittea/ ba, plaza pasa ezkeo segittun.
- Eta jenderik egoten zan kaliau gauzak saltzen? Berdura-ta saltzen, edo arraiña...
- Han, Bretxan. Bretxan bai.
- Bretxan bai. Baiña hemen kale hontan ez?
- Ez, ez, ez. Gero beste bi komestible´re bai, hauntzixio, eskubikaldea, kai aldea. Oaindik´e segitzen dute /segitzeute/.
- Eta alpargata sailtzaillerik edo...?
- Bai, kale hontan badao. Bai. Apreta saltzaillia kale hontan /kaliontan/ bertan badao. Honen gurasuak jarri zuen ta beak´e segitzen du oandik.

2. Don Migel Muñoak sortutako ikastola

- **Erref:** DON-013/004
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:05:31. **Bukatu:** 00:07:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Umetan gutxi ibiltzen ziren kalean. Lehenengo euskarazko eskoletan eta gero Elizarango mojen ikastetxean ibili zen. Euskarazko ikastola hura don Migel Muñoak ireki zuen, gizon aberatsa zen eta etxe eder bat zuen, frontoi eta guzti.

3. Mojekin tapatuta jantzi behar

- **Erref:** DON-013/005
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:07:07. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mojen ikastetxean ezin zuten edonolako arropak jantzi, tapatuta joan behar izaten zuten. Lehen bainujantzia ezkondu ondorenean erosi zuen. Mojak gerora ez omen dira hain tapatuta joan jantzita.

4. Elbira Zipitria andereño eta Kursaleko apaiza

- **Erref:** DON-013/008
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:11:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Don Migel Muñoak sortutako ikastolan euskaraz ziren eskolak, mojetan erdaraz. Elbira Zipitria zen ikastolako andereñoa, oso zorrotza baina behar bezalako emakumea, Margariren esanetan. Elbiraren aurretik Consuelo ere izan zuen andereño. Kursaalera joaten ziren jolasten eta don Ramon Laborda zen Kursaleko apaiza. Hark prestatzen zituen nesken eta mutilen taldeak dantzak erakusteko. Abestiak ere ikasten zituzten.

5. Medikuarenera joateko ohiturarik ez

- **Erref:** DON-013/010
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:12:48. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

Aita gazterik hil zen. Orduan ez zuten medikuarenera joateko ohiturarik. Atotxa ondoan zegoen ospitale militarra, ez du beste ospitalerik ezagutu.

6. Migel Muñoaren eskuzabaltasuna

- **Erref:** DON-013/014
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:16:32. **Bukatu:** 00:18:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Bere anaia ere Migel Muñoaren ikastolara joan zen. Muñoa oso ondo portatzen zen mutilekin. Esate baterako, arotza izan nahi zuenak erremintekin ateratzen zen haren ikastolatik. Migel Muñoa ezkongabea zen eta ordurako aberatsa izango zela uste du Margarik. Ostegun arratsaldetan, jai egin ordez, ikastolako andereñoarekin Migel Muñoak Amaran zuen etxe batera joaten ziren haurrak merienda egitera, dena Muñoaren kontura izaten zen.

7. Mojen ikastetxeko oroitzapen onak

- **Erref:** DON-013/016
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:19:38. **Bukatu:** 00:21:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mojen ikastetxean ikasturteko emaitzak koloreka ematen zizkien: zuria, orlegia, urdina... Berak ia beti denak izaten zituen urdin kolorezkoan. Berak ez zuen zigorrik jaso, baina mojen zigorren zeintzuk ziren aipatzen ditu: zerbait askotan idatzi beharra, ikasgelako bazter batean jartzea... Sekula ez zituzten jotzen. Txiki-txikia zen moja bat zegoen, denek zioten beldurra, gaiztoa baitzen. Elizondokoa zen sor Aureliarekin oso ondo konpontzen zen, euskalduna zen eta harekin euskaraz egitea posible zen. Gerra hasi zen urtean, frantsesa ikasten hasteko ziren, baina gerraren ondorioz ez zuten ikasi.

8. Gerran aita etxean eta beraien Hernanira

- **Erref:** DON-013/017
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:21:59. **Bukatu:** 00:22:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerran alde egin zuten, baina aita etxean gelditu zen lanari eutsi baitzion. Jendeak beldurra zuen, etxea utzi eta dena galduko zuelakoan. Baina beraiek Hernanira joan ziren eta ez zuten beldurrik pasa. Hernaniko gazteria beti izan da borrokalaria Margariren ustez.

9. Hernaniko sua ikus zezaketen

- **Erref:** DON-013/019
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:22:58. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

Laburpena:

Gerran, bere jaiotetxera, Hernaniko Martindegi auzoko Oilalumera joan ze amarekin batera. Osabak leihotetan lasto-fardoak jarri zituen defentsarako. Handik ikusita zuten handiak ikusten zituzten Hernanin. Astigarragan, aldiz, ez zen horrelakorik egon. Dena baretu zenean, bueltatu ziren aitarengana etxera. Gerran etxea utzi zuten asko ezer gabe gelditu ziren, etxea okupatuta aurkitu baitzuten.

10. Elizaren indar izugarria

- **Erref:** DON-013/022
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:27:55. **Bukatu:** 00:28:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Ohiturak eta bizimodua](#) » [Erljioa](#) » [Elizaren indarra](#)

Laburpena:

Elizara asko joaten ziren, edonoiz. Tuntun amorratua zela dio. Bainujantzia erosteko ere beldur zen.

11. Kaiko emakumeak espabilatua

- **Erref:** DON-013/023
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:28:50. **Bukatu:** 00:30:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Familia eta harremanak](#) » [Sexua eta generoa](#) » [Genero berdintasuna](#)
- [Aisia](#) » [Mendia eta hondartza](#) » [Hondartza](#)

Laburpena:

Hondartzara joan arren ez ziren bainatzen. Edadeko emakumeak soinekoarekin, jantzita, sartzen ziren urtera. Kabina barruan aldatzen zituzten arropak. Ume txikiak soineko gabe bainatzen ziren. Kaiko emakumeak oso salerosak eta ausartak ziren eta han bai bainatzen ziren. Kaiko emakumeak ohituta omen zeuden itsasorako eta gizon artean lan egitera.

12. Aberatsen umeak inudeekin

- **Erref:** DON-013/025
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:32:03. **Bukatu:** 00:33:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Familia eta harremanak](#) » [Lagunartea eta familia](#) » [Haurrak zaindu eta hezi](#)
- [Lanbideak](#) » [Neskameak](#)

Laburpena:

Umeak oso ondo janzten ziren. Aberatsen umeak inudeak lagunduta ateratzen ziren kalera. Inudeak zuriz janzten ziren eta asko bizkaitarrak ziren. Umeak paseatzeko aulkitxoak oso dotorea izaten zuten, gaur egungoak baino dotoreagoak.

13. Etxeko logela alokatzen zutenekoa

- **Erref:** DON-013/027
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:37:43. **Bukatu:** 00:39:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Etxeko logela bat alokagai izaten zuen diru-sarrera batzuk izateko. Inguruko tabernariak-eta bidaltzen zizkieten haien bezeroak. Uda sasoian asko errepikatzen zuten eta aurrez idazten zieten erreserbatzeko.

14. Umeen arropen jostuna

- **Erref:** DON-013/029
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:42:46. **Bukatu:** 00:44:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Umeen arropak josten zituen Margarik. Jostunaren lana nekagarria da, hitzartutakoa sasoiz egin behar baita. Bere amari haren amak erosi zion Singer markako josteko makina, zortzi ogerleko ordaindutakoa. Askotan brodatzaile batekin, Miren Zumalaberekin, egiten zuen lan elkarlanean.

15. Errezionamenduko ogi gogorra

- **Erref:** DON-013/036
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 01:08:12. **Bukatu:** 01:08:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Bere amak diruari asko begiratzen zion, guztiz beharrezkoa zen hori egitea. Errazionamendua miseria zela dio. Eskerrak taloarekin konpontzen ziren; izan ere, ogi gogor eta beltz hura norbait jo eta begia ateratzeko modukoa zela dio. Francok ederki izorratu gintuela gaineratzen du.

16. Komunisten, abertzaleen eta karlistene goitzak

- **Erref:** DON-013/041
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:14:18. **Bukatu:** 01:15:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

Alderdi komunistakoak bere etxe ondoan batzen ziren, abertzaleak Bulebarreko Euzko etxean eta karlistak Fermin Kalbetonen, anbulatorioa dagoen tokian.

17. Baserritarrek Donostiara

- **Erref:** DON-013/044
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:17:22. **Bukatu:** 01:19:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Lehen automobil gutxi ikusten zen. San Lorentzo kaleari "Astokale" deitu izan diote beti, han uzten baitzituzten lotuta baserritarrek astoa. Zalgurdiarekin ere etortzen ziren. Bere jaiotetxetik ere, Oilalumetik, zalgurdian etortzen ziren. Margariren amak txerri-jana prest izaten zuen haientzat. Txerrikia asko gustatu izan zaio beti Margariri.

18. "Grisek" Alde Zaharra asko zigortu zuten

- **Erref:** DON-013/047
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:22:20. **Bukatu:** 01:23:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Poliziaren jantzia grisa zen eta horrela deitzen zitzaien: "grisak". Lehenago uniforme marroia zuten. Alde zaharra oso inguru zigortua zela dio, "grisek" asko zigortu zutela.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com